

Lancesko hondoratzeak.

Los Lances izena hartzen du Tarifako udalerrian dagoen 7 km baino gehiagoko hondartza eremuak. Bertan ohikoa da pertsonen presentzia.

Urpean ere nabarmena da gizakiaren arrastoa.

Itsas triku, koral eta gorgoniek jada paisaian integratuak dauden aingura zaharrak lortzeko borrokatzen dute.

Bitartean, bizargina bezalako arrainak zokomiran dabiltza elikagai eta ostatu bila.

Kolorebakar eta interesgabeak izan ziren burdinak, kolore, forma eta ehunduraz bete dira.

Hemen, Tarifa parean, *Achille* ontzia hondoratu zen 1804an, Greziatik zetorren gariz zamaturiko errusiar banderadun itsasontzi bat.

1821ean, Villarealdik Genova zihon *Estrella Feliz* ontziak jo zuen hondoa. Sardiniako bandera zeraman, eta atun, gari eta antxoaz zamaturik zihon. Eta 1837an *Don Juan* ontzia izan zen; fruta eta beruna zeramatzen Malagatik Londresera.

1856ko urtarrileko ekaitza XIX. mendeko bortitzena izan zen; lau hilabete lehenago, El Callao portu perutarretik abiatu zen *Slufer Cheslur* anglo-amerikar ontzia suntsitu zuen. Eta urte horretan bertan, martxoan *Miño* hondoratu zen.

Reina Regente gurutze-ontzia 1895ean hondoratu zen, marokoar ordezkari diplomatikoak Tangerrera erametetik bueltan zetorrela. Galdara urtetan egon zen hondartzan.

Eta hauek bezala, beste hainbat asmakuntza hil ziren Los Lances parean.

XIX. mendea lurrunaren mendea izan zen, eta beraz, merkantzia eta bidaiariak munduaren punta batetik bestera zamaten zituzten itsasontziena. Mundua eta bere ekaitzak menderatzeko gai zirela uzte zuten, baina sarritan, ur korronteez, haizeak eta hondarpeek beraien epai apelaezina inposatzen zuten.

Orain, burdin horiek guztiak berdinak dira. Iluntasunetik ilunenera, eta gero, bizitzaren kolorera bidea irekitzen duten zuloak marratzen dituzte.

Gorgonia, koral eta belakiz estalirik, behin eta berriz arrain, izar, olagarro eta trikuen bisitak jasoz, burdina izaki bizidunen sostengu eta babesleku bihurtu da.

Makina eta eraikuntzen historiak bizi forma konplexuekin bat egitea giza gaitasunaren mugen metafora bat da ia.

Itsasoak beti aurkitzen du gizakiari bere hauskortasuna gogorarazteko aukera, nahiz eta pertsonak atzean ez gelditu, muga berriak esploratzeko konponbide berri eta irudimentsuak aurkitzeko orduan.

Eta mugak ez daude beti urruti. Batzuetan, itsasgizon baten atsekabe hondoratuei eusten dien gorgonia eta belakiek estaltzen dituzte.

Beste batzuetan, mugak ez doaz arrainak ezkututzen diren zokoetatik edo karramarro batek esploratzen duen gainazaletik harantzago.

Onartu beharra dago itsasoak beti ematen diola pisugabeko itxura bere baitan erortzen den orori, bizidun edo bizigabea izan, oraina edo geroa.

Itsasarte gurutzatu nahi zuten gizonen erronka izan zen itsasoa. *Achille*, *Estrella Feliz*, *Don Juan*, *Slufer Cheslur*, *Miño*, *Reina Regente* eta beste ontzi askotakoak bezala. Ausartu egin ziren, eta partida galdu zuten Los Lances hondartzan, orain trenkada, aingura, masta, galdara, lingote eta kornamusaz josia.